

Argi dago pertsona izena zuela etxe harek, inoiz Anso eta maizago Sancho bezala agertzen den izen bera. Nafarroako arreegen garaitik era bat baino gehiagotara zabaldu zen gure erresumetan; baina, gaztelerazko *Ancho*-rekin zer ikusirik ga-bea.

* * *

G. BORROW ETA T. ETXEBARRIA.—Gure mende honen lehen partean Eibarren egosten zen langilieriarekiko gizarte-giroa interesgarria dugu gure historiarako, bereziki euskaldun langileak sindikalista eta sozialista ekintzontan zer nolako jarrerak hartzen zituzten ezagutzeko. Giro hura ezagutzeko libururik hoberena Toribio Etxebarriaren *Viaje por el país de los recuerdos* (México, 1968) deritzana dugu noski, naiz eta alderdi baten kidetzatik begiraturik egon. Gerragatik herbesteuraturik, Caracas-en, bere bizitzako azken urteetan idatzia da. Liburu ona, baina memoria hutsez aritzeak berakin dituen xehetasunerako kalteak ere nabari ditu, horren ondoriz zenbait huts egitez. Horietako bat da hemen azaldu nahi duguna.

Esan beharra dago Toribioren Biblia zaletasuna ez dela zalantzan jartzekoa. Hori ongi erakutsi zigun eibartarrera zenbait zati itzultzean, *Ibiltarixanak* (Zarautz, 1967) liburua leku-ko. Baina, aipaturiko *Viaje por el país de los recuerdos* liburuaren 102. orrialdean dionez: «unos libritos de perra gorda que un día compré a George Borrow, de paso por Eibar, que si no sabía el caló de los gitanos hablaba un euskera de Goi-erri suave y enjundioso: eran los evangelios y los salmos». Puntu hontan, ez dago dudarik, hariak gurutzatu zitzaizkion gure Toribiori, zeren G. Borrow, *The Bible in Spain*-en egilea, Toribio jaio baino sei urte lehenago hila bai zen. Hau da, G. Borrow 1881ean hil zen eta T. Etxebarria 1887an jaio. Beraz, Borrow-ek euskara zerbait bazekien ere, eta hala zion Oteiza medikuari San Lukas Ebangelioa (1838) itzularazi ondorean

ber-berak egin zizkiola zuzenketak. Baina ez dugu uste Goierriko euskalkian hain egoki mintzatzen zenik, ezta ere Eibartik igaro zenik. Behar bada, bere jarraitzaileen bat izango zen, Ebangelio Ekintzakoa, liburu hura Manuel Azañak espainolertzean, *La Biblia en España* (1921), atera zuen hotsaren eraginezko ondorioz.

Memoria hutsa lagur gelditzen da.

* * *

ERMUA, HERRI-MUGA?—Igazko azaroan (*La Voz de Euskadi*-k 1983ko azaroaren 27an zekarrenez), Bizkaian, Ermuko Euskadiko Ezkerra talde politikokoek beren buletina kaleratu zuten *Herri Muga* izenburuz, eta honako argitasun hau emanez: «se ha especulado mucho en diversos trabajos sobre el origen toponímico del término Ermua y, entre los diversos vocablos que pudieron ser la base del mismo, sobresalen dos que gozan de una mayor aceptación: Ermua (lugar yermo, no cultivado) y Herri Muga (pueblo frontera). Sin pronunciarnos por uno o por otro, hemos decidido utilizar este último como cabecera de nuestro órgano de expresión local». Ederto! Bapo! Hastekota behin, erdaraz egiteko zergatik behar dute euskarazko tituludun buletina? Eta, izena hautatzeko orduan, euskaraz ez bada-kite, zergatik ez dute jo euskaldun normal batengana? Filologia edo linguistika ikasi beharrik ez zen hori erabaki dezakeenen artean. Zentzuz jokatu behar den gauzetan ere «gozar de aceptación» ote arrazoizkoa? Karameluak edo koloreak hautatzen diren gisa, proposatu eta, beste gabe, hautatu.

«Pueblo frontera» izan balitz bere itzulpena, *muga-herri* zen eta ez alderantziz. Gainera, guti axola Euskal Herriko Ermua bakarra Bizkaiko hori izan balitz. Ez dakigu zergatik ez on har Eremu, latinezko *eremus*-tikakoa, oso argi eta oso zabaldua dagoen ezkerro.